

## SASKIBALOIA



Antonio Gomez Carrak trago txarra hartu zuen Askatuaken aurka.

## Askatuakek B1 multzoko lehen postua eskura dezake oraindik

RAMON BASALDUA / BILBO

Askatuakek B1 multzoko lidergoa lortzeko aukerak baditu, azken ihardunaldian Caja Bilbaori irabazi ondoren. Hala ere, Antonio Gomez Carrak entrenatzen duen taldea da lehen postu hori eskuratzeko aukera gehien dituen, izan ere, datorren ihardunaldian Obradoiro La Casillan gailentzea nahikoa izango bait luke. Askatuakek, ordea, Melillan irabazteaz gain Obradoiroren garaipenaren zain geratu beharko luke.

Edozer gerta daiteke datorren ihardunaldian, baina gauza bat argi utzi zuen Askatuakek Josean Gasca kiroldegian Caja Bilbaoren kontra jokatu zuen partiduan, hau da, Josean Aldalurren mutlak goi mailako jokoa egiteko gai direla eta jaitsierako ligatxoan sartu badira, partidu batzuetan eginiko okerren erruz izan dela. Caja Bilbaori dagokionez, lotsa-

garri aritu ziren bilbotarrak Askatuaken kontra. Hamasei puntu baino gutxiagoz galtzea nahikoa zuten bilbotarrek lehen postua matematikoki eskuratzeko. Hala ere, Antonio Gomez Carrak zuzentzen dituen gizonek lan negargarria egin zuten Donostian.

Caja Bilbaok hiru aldiz irabazi izan dio Askatuaki denboraldi honetan, baina laugarren partiduan galtzaile izateak kalte handia sor diezaioke Bilboko taldeari Obradoiro menperatzea lortzen ez badu. Askatuakek, ordea, aurrerapausu handia eman du Caja Bilbaori irabaztearekin. Donostiarrek lehen postua eskuratzeko aukera gutxi batzuk izateaz gain, ia ziurtatua dute bigarren postua. Bigarren geratuz gero, B2 multzoko hirugarrenaren kontra jokatu lukete, hau da, Santa Colomaren kontra. Horrela gertatuko balitz, donostiarrek play offeko bost partiduetatik hiru, etxean jokatuko lituzkete.

## Hutsarte baten ondorioak

Antonio Gomez Carrak, Caja Bilbaoko entrenatzaileak, hutsartea eskatu zuen Caja Bilbaok eta Askatuakek La Casillan jokatu zuten azken norgehiagoka amaitzeko segundu gutxi batzuk falta zirenean. Partidua erabakita zegoen arren, Gomez Carrak hutsartea eskatu zuen, Askatuak taldeko zenbait partaideren haserrerako. Bilbotarren entrenatzaileak, partiduko azken saskiratzea ziurtatu nahi izan zuela esan zuen, basket averagea «oso garrantzitsua gerta zitekeelako». Gomez Carrak noski, ez zion jaramonik egin donostiarren haserreari.

Aste batzuk beranduago hutsarte horren buelta etorri zaio Gomez Carrari. Caja Bilbaok Askatuakekiko basket averagea galdu zuen larunbatean Josean Gasca kiroldegian jokaturiko partiduan, eta Donostiako direktibo batek gogoratu egin zion bilbotarren entrenatzaileari Bilbon eskatu zuen hutsartea. Gomez Carrak ez zuen gogo onez Askatuakeko ordezkariaren jarrera eta ez zitzaion askorik falta izan zartakoren bat emateko ere. Gomez Carra erratuta dago Jaungoikoa dela uste badu.

## Taugresen benetako aukeren berri emango duen astea iritsi da jada

Estudiantes eta Barçaren aurkako lehiak erabakiorrak izango dira


Ostegunean Estudiantes eta igandean Barcelona izango dira Taugresen benetako aukerak neurtzeko uneak, sailkapeneko lehen lau postuen artean amaitu ahal izateko. Play-offak jokatzeko modua erabakiko duten partiduetako prestakizunetan dabil Baskonia, Barcelonaren kontrakoa 'klubaren egun erdia' egin duena.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

ACBko txapelduna emango duten play-offetara iristeko gutxi falta da. Ostegunean Madrilen Estudiantesen aurka eta igandean Gasteizen Barcelonaren kontra, Herb Brownen taldearen aukerak noraino hel daitezkeen neurtzeko partidua izango dira, ondorengo play-offetako azken pausuetan ziur aski Baskoniak izango dituen aurkariak bait dira.

Taugresen egoera objektiboa, gainera, aste honetako neurketetara baikor begiratzeko modukoa da. Otsailaren 8tik ez du partidu bat bera ere galdu Ligan. Aldiz, Forum edo Elosua bezalako taldeak menperatu ditu, Dicenta eta Sibilio osatzen ziren bitartean.

Gaur egun, antza, taldea fisikoki eta psikologikoki prest dago gogorak gertatuko diren Estudiantes eta Barcelonaren kontrako partiduei aurre egiteko. Azken ihardunaldian, OAREN aurka, amaieran bertan Carlos Dicentak sartu zuen hirukoak garaipena ezezik, benetako orduari ekiteko nagusitasun mentala ere eman diezaioke taldeari. Etzi eta



Lavodramaren ahaleginak ez ziren nahikoa izan Taugresi irabazteko.

✓ Play-offen atarian Taugresen egoera baikor izateko modukoa da, otsailak 8az geroztik ez bait du galdu Ligan.

igandean frogatu beharko dute.

Estudiantesen kontrako partidua gaueko 8etan izango da eta ETBk zuzenean emango duela

iragarri da. Barcelonaren aurka igandean jokatu dutela jakin erazi du Baskoniak, baina baita partidua larunbatean izan litekeela ere.

Oraingoz argi dagoena, Barcelonaren kontrako neurketa 'klubaren egun erdia' izango dela. Sarrerak Araba Pabilioian bertan edo Florida kaleko bulegoetan aldeztu aurretik erosteko deia egin du Baskoniak. Garestiena 1.500 pezetakoa da, merkeena 700 pezetakoa eta haurrak dohainik sartuko dira.

## Vlade Divac jugoslaviarrak NBA segitzeko arazoak izan ditzake

NEW YORK


Vlade Divac, NBAko Los Angeles Lakers taldeko jokalaria jugoslaviarrak arazoak izan ditzake taldean jarraitzeko. Divacek Beogradeko Partizan taldean jokatzeko 1989an NBArako joan aurretik. Kontratua hiru urtekoa zen, eta klausula berezia zela eta, pibotak Partizanera itzuli beharra zuen epe hori amaitutakoan.

Hala ere, Jerry West, Lakers taldeko manager nagusiak Vlade Divaci kontratua berritzea erabaki zuen, Partizan ezertarako kontutan hartu gabe. Kontratu berri honen arabera, Divacek beste sei denboraldi jokatuko ditu Lakersen, eta iturriek aditzera eman ez dutenez, jokalaria hiru

milioi dolar (300 milioi pezeta inguru) jasoko ditu urteko.

Baina istorio polita zirudienak gaizki buka dezake. Partizanek kontratua errespetatzeko eskatu dute, eta beraz, jokalaria Beogradeko taldera itzultzeko. Radojica Nikcevic, Partizaneko lehendakariaren esanetan, «behar den tokiraino iritsiko gara. Legeak Divac Partizaneko jokalaria dela dio, denboraldi hau amaitzen denean, eta beraz, Lakersek eskaini dion kontratua baliorik gabe geratzen da, Californiako taldea gurekin akordiora heltzen ez bada».

Divac titular izan da Lakers taldean azken bi denboraldietan, eta bera da hain zuzen ere, Californiako etorkizunerako itxaropenik handiena.



Vlade Divac.